


# MEMORIA ANUAL 2022
# URTEKO MEMORIA

**EUSKADIKO FILMATEGIA**
FILMOTECA VASCA

**SARRERA** 04
INTRODUCCIÓN

**ARTXIBOA** 08
ARCHIVO

**DIGITALIZAZIOA ETA LAN TEKNIKOAK** 12
DIGITALIZACIÓN Y TRABAJOS TÉCNICOS

**SARTUTAKO MATERIALEN ZERRENDA 2022** 14
RELACIÓN DE INGRESO DE MATERIALES EN 2022

**ARTXIBOA GUZTIRA 2022-12-31N** 16
TOTAL FONDO DE ARCHIVO A 31-12-2022

**DOKUMENTAZIO SAILA** 18
DEPARTAMENTO DE DOCUMENTACIÓN

Ikus-entzunezko funtsen katalogazioa / Catalogación de fondos audiovisuales 18

Liburutegia / Biblioteca 20

Artxibategia / Archivo 23

**IRAKASKUNTZA ELÍAS QUEREJETA ZINE ESKOLAN ETA IKASLEEN PRAKTIKAK** 24
DOCENCIA EN LA ELÍAS QUEREJETA ZINE ESKOLA Y PRÁCTICAS DE ESTUDIANTES

**IKUS-ENTZUNEKO FUNTSEN KONTSULTA** 26
CONSULTA DE FONDOS AUDIOVISUALES

**FILMATEGIRA EGINIKO BISITAK 2022AN** 28
VISITAS A LA FILMOTECA EN 2022

**PROGRAMAZIOA ETA HEDAPENA** 30
PROGRAMACIÓN Y DIFUSIÓN

Zikloak / Ciclos 32

Euskara / Euskera 38

Beste zenbait jarduera / Otras actividades 41

# Sarrera

# Introducción

2022a urte aipagarria izan zen Euskadiko Filmategiaren historiarako.

Ikuspegi internazionaletik erreparatuta, urrats historiko garrantzitsua izan zen erakundearentzat Film Artxibategien Nazioarteko Federazioan eskubide osoko kide gisa integratzea —alor horretako nazioarteko erakunde nagusiaren aintzatespena jasotzea, alegia—, eta pizgarritzat hartzen dugu hori, gure egitkizunetan jarraitzeko eta aurrez aurre ditugun erronka ugariei heltzeko.

Kontserbazioaren esparruan, egonkortzea aipatu behar da, hala babeste fotokimikoan nola digitalean, eta aurrerapen nabarmenak egin dira dokumentazioaren eta katalogazioaren alorrean. Programazioa, bestalde, suspertze-zantzu politak hasi zen ematen, eta atzean utzi zituen pandemiak eragindako murrizketa ugariak.

2022 fue un año destacable para la historia de la Filmoteca Vasca.

Desde el punto de vista internacional, la integración como miembro de pleno derecho en la Federación Internacional de Archivos Fílmicos (FIAF) fue un paso histórico importante para la institución, un reconocimiento de la principal organización internacional en este ámbito, un estímulo para seguir llevando a cabo nuestras funciones y afrontar los múltiples retos del futuro.

En el ámbito de la conservación cabe hablar de estabilización tanto en lo concerniente a la preservación fotoquímica como a la digital, con notables avances en el terreno de la documentación y catalogación. Por otro lado, la programación comenzó a dar buenos síntomas de recuperación tras dejar atrás las numerosas restricciones derivadas de la pandemia.






**EUSKADIKO FILMATEGIA ESKUBIDE OSOKO KIDEA DA FILM ARTXIBOEN NAZIOARTEKO FEDERAZIOAN (FIAF)**

2022ko apirilaren amaieran, Film Artxibategien Nazioarteko Federazioak Budapesten egin zuen urteroko kongresua, eta Hungariako Film Institutu Nazionala izan zen anfitrioi. Euskadiko Filmategiaren eskaera formalak, erakundeari buruzko askotariko informazioa jasotzeaz gainera, hiru babes-gutun ere bazituen, bereziki garrantzitsuak hautagaitzarako: Eric Le Royrena (Zinema eta Irudi Animatuaren Frantziako Zentro Nazionaleko Zinema Ondarearen zuzendaria), Josetxo Cerdánena (Espainiako Filmotekako zuzendaria) eta Esteve Riambaurena (Kataluniako Filmotekako zuzendaria). Film Artxibategien Nazioarteko Federazioaren Batzorde Exekutiboak “bikaintzat” jo zuen Euskadiko Filmategiaren dosierra, eta aldeko botoa emateko gomendioa helarazi zien horretarako eskubidea duten nazioarteko 93 zinematekei. Bozketaren ondotik (aurkako botorik ez, eta abstentzio bakarra), Federazioko eskubide osoko kide izendatu zuten ofizialki Euskadiko Filmategia.

**LA FILMOTECA VASCA SE CONVIERTE EN MIEMBRO DE PLENO DERECHO DE LA FEDERACIÓN INTERNACIONAL DE ARCHIVOS FÍLMICOS (FIAF)**

A finales de abril de 2022, la Federación Internacional de Archivos Fílmicos (FIAF) celebró su congreso anual en Budapest, con el National Film Institute de Hungría como institución anfitriona. La petición formal de la Filmoteca Vasca incluyó, además de todo tipo de información sobre la institución, tres cartas de apoyo especialmente relevantes para la candidatura: las de Eric Le Roy (director de Patrimonio Cinematográfico del Centro Nacional del Cine y la Imagen Animada, el CNC de Francia), Josetxo Cerdán (director de la Filmoteca Española) y Esteve Riambau (director de la Filmoteca de Catalunya). El Comité Ejecutivo de la FIAF valoró el dosier de la Filmoteca Vasca como “excelente” y recomendó el voto favorable a las 93 cinematecas internacionales que tienen derecho al mismo. La votación resultante (ningún voto en contra y una abstención) dio lugar al nombramiento oficial de la Filmoteca Vasca como miembro de pleno derecho de la Federación.

## KONTSERBAZIOA ETA PROGRAMAZIOA

Euskadiko Filmategiaren jarduna azpikoz gora jarri zuen pandemia igaro ondotik, 2022ak normaltasuna ekarri du atzera. Apurka-apurka, ikus-entzuleak itzuli dira zinema-aretoetara, eta iaz antolaturiko lau zikloek (Zinema eta Zientzia, Lumière Saioak, Jazzinema eta Euskal Emakume Zinemagileak II), eskolarteko saioek eta saio bereziek 7.740 lagun erakarri zituzten (2021ean 5.704 izan ziren).

Donostia International Physics Centerrekin (DIPC) batera antolatutako Zinema eta Zientzia zikloarekin hasi zen urtea: bosgarren edizioa izan zuen, eta, urtarriletik martxora bitartean, zientziarekin eta zinemagintzarekin loturiko kultura eta eztabaida sustatu zituen. Apiriletik ekainera bitartean, Lumière Saioak izan ziren; hau da, zaharberritutako film klasikoen aukeraketa bat. Lankidetza emankorra izan zen Lyongo Lumière Institutuarekin, eta, horri esker, gure artean izan genituen Thierry Frémaux (Lumière Institutuko zuzendaria eta Cannesko Zinema Jaialdiko delegatu nagusia), Maelle Arnaud (Lumière Institutuko programazio-arduraduna) eta Irène Jacob (antzezlea eta Lumière Institutuko presidentea). Uztailean, hirugarrenik, Jazzinema zikloa egin zen, EAEn antolatzen diren hiru jaialdi handiei loturik (Donostiakoa, Gasteizkoa eta Getxokoa).

## CONSERVACIÓN Y PROGRAMACIÓN

2022 ha sido el año de la vuelta a la normalidad tras una pandemia que trastocó la labor de la Filmoteca Vasca. Poco a poco, los espectadores han vuelto a las salas de cine y este año los cuatro ciclos que organiza (Cine y Ciencia, Sesiones Lumière, Jazzinema y Cineastas Vascas II), las sesiones escolares y las sesiones especiales tuvieron un público de 7.740 personas (en 2021 fueron 5.704).

El año arrancó con la quinta edición de Cine y Ciencia, organizado junto al DIPC (Donostia International Physics Center); un ciclo que entre enero y marzo promueve el debate y las culturas científica y cinematográfica. Entre abril y junio tomaron el relevo las Sesiones Lumière, una selección de películas clásicas restauradas y que supuso una colaboración muy fructífera con el Instituto Lumière de Lyon. Gracias a ella nos visitaron Thierry Frémaux (director del Instituto Lumière y delegado general del Festival de Cannes), Maelle Arnaud (responsable de programación del Instituto Lumière) y la actriz Iréne Jacob (presidenta del Instituto Lumière). Durante el mes de julio se llevó a cabo el ciclo Jazzinema, ligado a los tres grandes festivales que se organizan en el territorio (San Sebastián, Vitoria y Getxo). Y la



Eta, programazioa amaitzeko, Euskadiko Filmategiak urtero euskal zinemari eskaintzen dion tartea antolatu zen. Ziklo horren barruan, Pedro Olea zinemagile bilbotarrak Euskadiko Filmategiaren Lehen Saria jaso zuen: Tabakaleran egindako ekitaldi hunkigarri hartan izan ziren, besteak beste, Imanol Uribe eta Pablo Malo. Azken urteotan ohikoa den bezala, ziklo batzuetako programazioa, Gasteizen, Donostian eta Bilbon ez ezik, Donibane Lohitzunen eta Iruñean ere eskaini zen, Le Sélect eta Golem zinema-aretoekin lorturiko lankidetzari esker.

programación se cerró con el espacio que la Filmoteca Vasca reserva todos los años al cine vasco. En el marco de este ciclo, el cineasta bilbaíno Pedro Olea recibió el primer Premio de la Filmoteca Vasca, en un emotivo acto que tuvo lugar en Tabakalera y que contó con la presencia, entre otros, de Imanol Uribe o Pablo Malo. Como viene siendo habitual en los últimos años, la programación de algunos ciclos, además de en Vitoria, San Sebastián y Bilbao, se ofreció en San Juan de Luz y Pamplona gracias a la colaboración con los cines Le Sélect y Golem.




2022a, orobat, egonkortze-urtea izan da kontserbazioaren alorrean. Babeste-lanei dagokienez, Euskadiko Filmategiak zinema komertzialeko gordailuak biltzen jarraitu du, eta, bereziki, zinema amateurraren eta etxeko zinemaren gordailuak, aberastu egiten baitute erakundearen ikus-entzunezko funtsa. Aipatzekoa da aurten akordio bat izenpetu dela Euskal Herriko Unibertsitatearekin, NOR ikerketa-taldeak Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako ikus-entzunezko funtsak bildu eta aztertu ahal izateko. Akordio horrek eman ditu lehen fruituak, eta, hari esker, etxeko filmez osaturiko lau funts gorde dira. Bestalde, Filmategiak lankidetzan jarraitzen du Elías Querejeta Zine Eskolako Artxibo espezialitateko ikasleak trebatzen, eta ikasle horiek, zenbait kasutan, praktikak ere egiten dituzte Filmategian.

2022 ha sido también el año de la estabilización en el área de la conservación. Respecto a la preservación, la Filmoteca ha seguido recogiendo depósitos de cine comercial y, especialmente, de cine amateur y doméstico que enriquecen el fondo audiovisual de la institución. Cabe destacar que durante este año se ha llegado a un acuerdo con la Universidad del País Vasco para que el grupo de investigación NOR examine y recoja fondos audiovisuales de Lapurdi, Nafarroa Beherea y Zuberoa. Un acuerdo que ya ha dado sus primeros frutos y que ha propiciado el depósito de cuatro fondos de películas domésticas. Por otro lado, la Filmoteca sigue colaborando con la formación de estudiantes de la especialidad de Archivo de la Escuela de Cine Elías Querejeta con prácticas incluidas en varios casos.

# Artxiboa

# Archivo

**BABESTE FOTOKIMIKOA**

Babeste analogikoari dagokionez, film fotokimikoak errepasatzea eta biltzea izan da areto teknikoen eguneroko lana (ondoren katalogatzeko). Eta halaxe jarraitzen du izaten orain ere. Prozesua motela da, gero eta handiagoa baita lan-bolumena. Elías Querejeta Zine Eskolako ikasleek Artxibo espezialitateko praktikak egiten dituzte urtero Euskadiko Filmategian, eta, besteak beste, kopia horietako batzuk errepasatzen dituzte 35 mm-tan.

Babeste analogikoaren esparruan, artxiboko voltak etengabe kontrolatzeari esker, aise detekta daitezke «ozpinaren sindromeak» jotako azetato-materialak, baita film fotokimikoetako bobinek izan ditzaketen beste arazo batzuk ere.

**PRESERVACIÓN FOTOQUÍMICA**

En lo que se refiere a la preservación analógica, la labor de repaso y recopilación de las películas fotoquímicas para su catalogación ha sido y sigue siendo el trabajo cotidiano de las salas técnicas. El proceso es lento debido al cada vez mayor volumen de trabajo. Los alumnos de la Escuela de Cine Elías Querejeta que anualmente realizan sus prácticas en la especialización de Archivo en la Filmoteca, se ocupan, entre otras labores, de realizar el repaso de algunas de esas copias en 35mm.

En el marco de la preservación analógica, el continuo control sobre los voltios del archivo permite localizar los materiales de acetato infectados con el síndrome del vinagre, así como otros problemas que puedan tener las bobinas de las películas fotoquímicas.








## BABESTE DIGITALA

Babeste digitalaren esparruan, 2021ean geldialdi bat izan zen, eta, haren ondoren, berriro ekin zitzaion fitxategi digitalak LIBSAFE biltegi digitalean sartzeari.

## PRESERVACIÓN DIGITAL

En el ámbito de la preservación digital, tras un parón en 2021, se retomó la ingesta de ficheros digitales en el repositorio digital LIBSAFE y se reanudaron las labores de ingesta en el repositorio.

## LIBNOVA PLATAFORMAREN DATUAK 2022KO ABENDUAREN 31N

- Guztira 547 objektu biltegiratu dira (90 Tb okupatzen dute).

- Gaur egun, 192 Tb da sistemaren guztizko edukiera.

- Biltegiratutako objektu bakoitzak katalogazio-metadatuak ditu xml formatuan, bai eta material osagarria ere.

- Gordailuan, alde batetik, beste erakunde batzuek (Eusko Jaurlaritzak, Zineuskadik...) gordetako materiala dago, eta, bestetik, Filmategiaren beraren artxiboan jasotako material fotokimikoaren digitalizazioak.

- Objektu bakoitzak hiru kopia ditu: bat offline, kanpoko disko gogorrean; bigarrena Filmategiaren biltegian; eta hirugarrena, azkenik, Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren biltegian. Informazio hori zehaztuta geratzen da katalogazioan.

- Biltegiaren interfazearen bidez, gainera, wikira sar daiteke, eta hantxe dago jasota informazio guztia: babesteko planarekin, objektuak hartzeko prozesuekin eta teknikarien oharrekin lotutakoa. Erabiltzaile guztiek eskura dezakete wikia.

## DATOS LIBNOVA A 31 DE DICIEMBRE DEL 2022

- Se han almacenado 547 objetos que ocupan 90 Tb.

- La capacidad total del sistema actualmente es de 192 Tb.

- Cada objeto almacenado tiene sus metadatos de catalogación en formato xml y material complementario.

- El material conservado en el repositorio es, por una parte, material depositado por otras entidades (Gobierno Vasco, Zineuskadi…). Por otra, se trata de digitalizaciones de material fotoquímico conservado en el archivo de la propia Filmoteca.

- Cada objeto tiene una copia en discos duros externos offline, una copia en el repositorio de la Filmoteca y una copia de seguridad en otra área geográfica, en Vitoria, en el repositorio del Gobierno Vasco. Esta información se refleja también en la catalogación.

- A través del interfaz del repositorio, además, se puede acceder a la wiki, donde se encuentra toda la información relacionada con el plan de preservación, los procesos de ingesta de los objetos y anotaciones de los técnicos. Todos los usuarios tienen acceso a la wiki.

## DONOSTIA ZINEMALDIAREN ‘ARTXIBOA’

Euskadiko Filmategiak kolaboratzaile gisa parte hartu zuen Donostia Zinemaldiaren *Artxiboa* aurkezteko ekitaldian (Madrilgo Arte Ederren Zirkuluan izan zen, abenduan). Webgune hori kontsulta publikorako irekia dago, eta Donostia Zinemaldiaren 70 urteko ibilbidea jartzen du edonoren eskura (https://artxiboa.sansebastianfestival.com/eu/). Han izan ziren, halaber, José Luis Rebordinos Donostia Zinemaldiko zuzendaria, Jesús Huerta Estatuko Loteria eta Apustuetako presidentea, Carlos Muguiro EQZEren zuzendaria, Pablo de la Parra Pérez *Zinemaldia 70: historia posible guztiak* proiektuko ikertzaile nagusia, Edurne Ormazabal Tabakalerako zuzendari nagusia eta Joxean Fernández Euskadiko Filmategiko zuzendaria.

## ‘ARTXIBOA’ DEL FESTIVAL DE SAN SEBASTIÁN

La Filmoteca Vasca participó como colaboradora en la presentación en Madrid (Círculo de Bellas Artes) en diciembre de *Artxiboa*, la web abierta a consulta pública que permite recorrer los 70 años de vida del Festival de San Sebastián (https://artxiboa.sansebastianfestival.com/). Estuvieron igualmente presentes José Luis Rebordinos, director del Festival de San Sebastián; Jesús Huerta, presidente de Loterías y Apuestas del Estado; Carlos Muguiro, director de Elías Querejeta Zine Eskola; Pablo de la Parra Pérez, investigador principal del proyecto *Zinemaldia 70*: *todas las historias posibles*; Edurne Ormazabal, directora general de Tabakalera y Joxean Fernández, director de la Filmoteca Vasca.

Proiektuak 4.000 artxibo-dokumentu baino gehiago dauzka digitalizatuta; horien artean, Zinemaldiaren beraren eta Kutxatekaren funtsetako 3.000 argazki baino gehiago, batzuk sekula argitaratu gabeak. Era berean, bildurik daude jaialdiko egunkarien 711 ale (egungo *Zinemaldia* aldizkaria), 1954tik gaur egunera bitarteko zenbakiekin, eta ia edizio guztietako 350 kartel, bai eta Artxibo Orokorreko eta prentsako gutunak eta materialak ere. Gainera, materialak deskribatzeko 27.000 fitxa baino gehiagoko katalogo bat proposatzen du —digitalizatuak zein digitalizatu gabeak—. Profesionalek ez ezik irakaskuntzako eta ikerkuntzako adituek ere azter ditzakete fitxa horiek aurrez aurre, aldez aurretik eskaria eginda, Euskadiko Filmategiaren bulegoetan baitaude fisikoki gordeta.

El proyecto cuenta con digitalizaciones de más de 4.000 documentos de archivo, entre los que figuran más de 3.000 fotografías del fondo del propio Festival y del de Kutxateka, algunas inéditas; 711 ejemplares de los diarios del certamen (la actual revista *Zinemaldia*), de los que se conservan números fechados entre 1954 y la actualidad; 350 carteles de prácticamente todas sus ediciones; así como correspondencia y materiales seleccionados del Archivo General y Prensa. Además, propone un catálogo de más de 27.000 fichas descriptivas de materiales, digitalizados o no, que podrán ser examinados de manera presencial a petición de profesionales y especialistas del ámbito docente e investigador que así lo soliciten, pues se conservan físicamente en dependencias de la Filmoteca Vasca.



# Digitalizazioa eta lan teknikoak

# Digitalización y trabajos técnicos

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak dirulaguntza bat eman zion Euskadiko Filmategiari film zinematografikoen eskaner bat erosteko, 8 mm-tik 35 mm-ra bitarteko filmak digitalizatzeko. 35 mm eta 16 mm-ko telezineak eta eskanerrak arazorik gabe funtzionatu dute, eta Euskadiko Filmategiak film komertzialak eta familiarrak digitalizatzen dihardu.

Nabarmentzekoa da, halaber, Euskadiko Filmategiko teknikariek Tabakalerako 2. aretoan egiten duten proiekziogile-lana. Areto hori Euskadiko Filmategiaren jabetzakoa da, eta askotariko proiekzioetarako erabiltzen da, hala nola Donostia Zinemaldiko Hautaketa Batzordearentzat, Elías Querejeta Zine Eskolarentzat edo Tabakalerarentzat berarentzat. Era berean, Filmategiak doako zerbitzua eskaintzen die euskal zinemagintzako ekoizpen-etxeei, aukera izan dezaten probarako lehen emanaldia doan egiteko gure proiekzio-aretoan.

Sail teknikoaren barruan, azpimarratu behar da gainditu direla 2021ean izaniko zibereraso batek Videoma sisteman eragindako arazoak. Berreskuratu dira fitxategi gehien-gehienak, eta hondatuta geratu diren gutxi horiek berriro ari dira digitalizatzen ahalik eta kalitate handienarekin, zerbitzu hobea eskaintzeko. Une honetan, 3.181 ikus-fitxategi digital ari dira biltegiratzen Videoma sisteman, 2.623 ordu guztira.










El departamento de Cultura del Gobierno Vasco concedió a la Filmoteca Vasca una subvención para la adquisición de un escáner de películas cinematográficas para digitalizar películas desde 8mm. hasta 35mm. Tanto el telecine de 35mm. y 16mm. como el escáner han funcionado sin complicaciones y las digitalizaciones de películas comerciales y familiares se realizan en buena calidad.

Hay que destacar, asimismo, la labor de las proyeccionistas que realizan las técnicas de la Filmoteca Vasca en la sala 2 de Tabakalera. Dicha sala, propiedad de la Filmoteca Vasca, se utiliza para numerosas proyecciones de todo tipo: para el comité de selección del Festival de San Sebastián, proyecciones para la Elías Querejeta Zine Eskola o para la propia Tabakalera. Asimismo, la Filmoteca ofrece un servicio gratuito a las productoras vascas para que puedan realizar su primer pase de prueba en nuestra sala de proyección sin coste alguno.

Dentro del departamento técnico hay que destacar que los problemas con el sistema Videoma (en 2021) derivados de un ciberataque han quedado atrás. La gran mayoría de los ficheros se ha recuperado y los pocos que han quedado dañados se están digitalizando de nuevo con la mayor calidad posible para así ofrecer un mejor servicio. En estos momentos, en el sistema Videoma se están almacenando 3.181 ficheros digitales de visionado, con un total de 2.623 horas.






# Sartutako materialen zerrenda 2022

## Relación de ingreso de materiales 2022

DCP
**56**

SUPER-8 MM-KO / SUPER-8 MM
**362 / 19**
Bobina / Bobinas — Gordailuzainek emanak / Depositantes

DVD
**4**

8 MM-KO / 8MM
**144 / 13**
Bobina / Bobinas — Gordailuzainek emanak / Depositantes

BLURAY
**1**

16 MM-KO / 16MM
**125 / 13**
Bobina / Bobinas — Gordailuzainek emanak / Depositantes

VHS
**5**
Zinta / Cintas

FITXATEGI DIGITAL / ARCHIVOS DIGITALES
**22**
(.avi, .mp4, .mov /.avi, .mp4, .mov)

35 MM-KO / 35MM

**19 / 23 / 7**

Kopia / Copias Bobina / Bobinas

BETACAM SP DIGITAL

**3**

Zinta / Cintas

BETACAM SP

**5**

Zinta / Cintas

9,5 MM-KO / 9,5 MM

**19 / 4**

Bobina / Bobinas Gordailuzainek emanak / Depositantes

C HAZBETE / PULGADA C

**3**

Zinta / Cintas

DV-CAM

**5**

Zinta / Cintas

16 MM-KO IRUDI-NEGATIBOAK
NEGATIVO DE IMAGEN DE 16MM

**17**

Bobina / Bobinas Gordailuzainek emanak / Depositantes

U-MATIC

**8**

Zinta / Cintas

BETAMAX

**6**

Zinta / Cintas

## IPAR EUSKAL HERRIKO GORDAILUAK BILTZEA

Ipar Euskal Herriko familia-gordailu asko Frantziako film-artxibategietan gorde izan dira historikoki, baina, haien gertutasuna eta garrantzia kontuan izanik, Euskadiko Filmategiak interes handia izan du film amateurrak eta familiarrak bere egoitzan gordetzeko eta digitalizatzeko.

Filmategiaren asmo hori NOR ikerketa-taldearekin sinatutako akordio bati esker gauzatu da, helburu gisa harturik Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako familia-funtsak berreskuratzea. Hori horrela, dagoeneko Euskadiko Filmategian daude gordeta familia-gordailu hauek:

Pierre Peyroux gordailua.

Louise Geffroy gordailua.

Marise Toffolo gordailua.

Maialen Duguine-Loyatho gordailua.

Peyroux sendiaren gordailuari dagokionez, aipatzekoa da Euskadiko Filmategian jaso zituztela Pathé Kok proiektagailurako lehen 12 bobinak; haietako batzuk 28 mm-ko filmak, zeinak 1912an hasten eta 1920an amaitzen baitira, Pathé Baby 9,5 mm-ko formatua agertu eta gero.

## RECOGIDA DE DEPÓSITOS DE IPAR EUSKAL HERRIA

Muchos depósitos familiares de Iparralde se han depositado históricamente en archivos fílmicos franceses, pero por su proximidad e importancia, la Filmoteca Vasca ha estado sumamente interesada en que esas películas amateur y familiares se conservaran y digitalizaran en nuestra sede.

Esa intención de la Filmoteca se ha materializado gracias al acuerdo con el grupo de investigación NOR para recuperar fondos familiares de Lapurdi, Nafarroa Beherea y Zuberoa. Así, son varios los depósitos familiares que se encuentran ya en la Filmoteca Vasca:

Depósito Pierre Peyroux.

Depósito Louise Geffroy.

Depósito Marise Toffolo.

Depósito Maialen Duguine-Loyatho.

Cabe destacar que en el depósito de la familia Peyroux se depositaron en la Filmoteca Vasca, las primeras 12 bobinas del formato Pathé Kok. Es un paso de películas de 28mm. que comenzó su andadura en 1912 y que finalizó en 1920 con la irrupción del Pathé Baby de 9,5mm.

# Artxiboa guztira 2021-12-31n

## Total fondo de archivo a 31-12-2021

35 MM-KO FILMAK / PELÍCULAS EN 35MM

**7.121** / **35.453**

Kopia / Copias — Bobina / Bobinas

FILM NEGATIBOEN MATERIALAK /
MATERIALES DE NEGATIVOS DE PELÍCULAS

**205** / **1.496**

titulu / Títulos — Bobina / Bobinas

16 MM-KO FILMAK / PELÍCULAS EN 16MM

**1.638** / **1.747**

Kopia / Copias — Bobina / Bobinas

9,5 MM-KO FILMAK / PELÍCULAS EN 9,5MM

**751**

Bobina / Bobinas

8 MM ETA SUPER-8 MM-KO FILMAK
PELÍCULAS DE 8MM Y SUPER-8MM

**867**

Gordailu / Depósitos

HAZBETE-zintak / Cintas DE PULGADA

**709**

Zinta / Cintas

VHS ETA BETAMAX zintak
Cintas VHS Y BETAMAX

**4.724**

Zinta / Cintas

DVD KOMERTZIALAK ETA FAMILIARRAK
DVDs COMERCIALES Y FAMILIARES

**4.440**

DVD

BETACAM SP zintak (ANALOGIKOAK)
Cintas BETACAM SP (ANALÓGICAS)

**1.449**

Zinta / Cintas

DCPAK ETA FITXATEGI DIGITALAK
DCPs Y ARCHIVOS DIGITALES

**1.763**

BETACAM DIGITAL zintak
Cintas BETACAM DIGITAL

**552**

Zinta / Cintas

VIDEOMA SISTEMAN GORDETAKO TITULUAK ETA ORDUAK
TÍTULOS Y HORAS ALMACENADAS EN EL SISTEMA VIDEOMA

**3.181** / **2.623**

Titulu / Títulos — Ordu / Horas

U-MATIC zintak / Cintas U-MATIC

**931**

Zinta / Cintas

BESTELAKO MATERIAL BIDEOGRAFIKOA
OTROS MATERIALES VIDEOGRÁFICOS (MINI-DV, VIDEO-8...)

**269**

Zinta / Cintas

# Dokumentazio saila

# Departamento de documentación

## Ikus-entzunezko funtsen katalogazioa

## Catalogación de fondos audiovisuales

2022an, Euskadiko Filmategiko ikus-entzunezko funtsak katalogatzeko prozesuarekin jarraitu dugu, KOHA tresnaren bidez. Tresna hori liburutegiak kudeatzeko sistema integratu bat da, eta Tabakalerako Medialab liburutegiarekin partekatzen du Filmategiak. Epe luzera, helburua da erakundeko material guztiak katalogo bakar batean biltzea, zeina aipaturiko KOHA bidez kudeatuko bailitzateke.

En el año 2022 se ha continuado con el proceso de catalogación de los fondos audiovisuales de la Filmoteca Vasca a través de la herramienta KOHA, un sistema integrado de gestión de bibliotecas, que la Filmoteca comparte con la biblioteca de creación Medialab de Tabakalera. El objetivo, a largo plazo, es el de unificar todos los materiales de la institución en un solo catálogo gestionado a través del citado KOHA.



2022an 1.444 erregistro katalogatu ziren orotara. Honela daude sailkatuta katalogatutako erregistroak:

A lo largo de 2022 se catalogaron 1.444 registros. Los registros catalogados están clasificados de la siguiente manera:

FILM, EUSKARRI FOTOKIMIKOAN / PELÍCULAS EN SOPORTE FOTOQUÍMICO

**138** (106 + 32)

Komertzial/profesionalak
Comerciales/profesionales

Familia-gordailuak edo amateurrak
Depósitos familiares/amateurs

FITXATEGI DIGITAL / ARCHIVOS DIGITALES

**496**

Bai Euskadiko Filmategian sortutako masterrak, bai ekoizpen-etxeek edo Eusko Jaurlaritzak bidalitako fitxategiak.

Tanto másters creados en la Filmoteca Vasca como archivos recibidos de productoras o del Gobierno Vasco.

BIDEOGRABAZIO / VIDEOGRABACIONES

**810**

2021AN ETA 2022EAN KATALOGATUTAKO
IKUS-ENTZUNEZKO ERREGISTROEN

**KONPARAZIOA**
**COMPARATIVA**

REGISTROS AUDIOVISUALES
CATALOGADOS EN 2021 Y 2022



# Liburutegia

# Biblioteca

Euskadiko Filmategiko funts bibliografikoa 7.000 alek baino gehiagok osatzen dute: Espainiako eta nazioarteko edizioetako dokumentu askotarikoak.

Euskadiko Filmategiko bildumak askotariko lanak ditu: erreferentzia-lanak (hiztegiak, entziklopediak, urtekariak...); zinemagintzako eta ikus-entzunezko zuzendari, interprete eta profesionalei buruzko monografiak; filmei buruzko monografiak; teoriari, kritikari eta estetikari buruzko saiakerak; teknika zinematografikoari buruzko eskuliburuak; Espainiako eta nazioarteko zinema-jaialdien katalogoak; filmen gidoiak (argitaratuak eta argitaratu gabeak); eta zinemari buruzko aldizkari ugari, bai garai batekoak, bai gaur egun argitaratzen direnak.

El fondo bibliográfico de la Filmoteca Vasca se compone de más de 7.000 ejemplares y está constituido por diferentes tipos de documentos, tanto de ediciones nacionales como de ámbito internacional.

La colección de la Filmoteca Vasca consta de obras de referencia (diccionarios, enciclopedias, anuarios...); monografías sobre directores, intérpretes y profesionales del mundo de la cinematografía y del audiovisual; monografías sobre películas; ensayos de teoría, crítica y estética; manuales de técnica cinematográfica; catálogos de festivales de cine nacionales e internacionales, guiones de películas tanto editados como inéditos, así como un gran número de títulos de revistas de cine antiguas y en curso de publicación.








## LIBURUAK

Euskadiko Filmategiak 5.806 erregistro dauzka katalogatuta eta kontsultagai dela erakundearen onlineko katalogoan, dela Bilgunean (Euskadiko liburutegien katalogo kolektiboa), eta, 2022az geroztik, baita euskal kulturari buruzko edukiak eskuratzeko Euskariana atari digitalean ere (proiektu hori Eusko Jaurlaritzaren, EAEko hiru foru aldundien, EAEko udalen, unibertsitateen eta kultura-ondarearen baliabide digitalizatuak kudeatzen dituzten erakunde pribatuen lankidetza estuari esker gauzatu da, eta Euskadiko Filmategiaren funtsen 3.000 erregistro baino gehiago kontsultatu daitezke bertan).

2022an, 248 monografia berri eta hiru aldizkari katalogatu ziren, eta liburutegiko funtsetan jaso.

## LIBROS

La Filmoteca Vasca dispone de 5.806 registros catalogados y consultables tanto en el catálogo online de la institución como en el de Bilgunea (catálogo colectivo de bibliotecas de Euskadi) y desde 2022, en Euskariana (portal digital de acceso a contenidos referidos a la cultura vasca; es un proyecto construido en estrecha cooperación entre el Gobierno Vasco, las diputaciones forales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, los ayuntamientos de la Comunidad Autónoma Vasca, las universidades y las instituciones privadas que gestionan recursos digitalizados del patrimonio cultural), donde hay más de 3.000 registros de los fondos de la Filmoteca Vasca consultables.

A lo largo de 2022 se catalogaron 248 nuevas monografías y tres nuevos títulos de revistas que se han añadido a los fondos de la biblioteca.

## ALDIZKARIAK

Gaur egun, 60 aldizkari baino gehiago ditugu katalogatuak eta liburutegian kontsultatzeko moduan. Halaber, 1920tik 1940ra bitartean Espainian eta nazioartean argitaratutako hogei bat aldizkari ere zaintzen ditugu, eta 100 aldizkari baino gehiago ditugu katalogatu zain (bilduma osatu gabeak eta/edo jada argitaratzen ez direnak).

## REVISTAS

En la actualidad, disponemos de más de 60 títulos de revistas catalogados y consultables en la biblioteca. Asimismo, custodiamos una veintena de títulos de revistas nacionales e internacionales publicadas entre los años 1920 y 1940, y más de 100 títulos de revistas (incompletas y/o que ya no están en curso) que están pendientes de catalogar.

## LIBURUTEGIAN EGINDAKO KONTSULTAK

Liburutegiko funtsak eskura ditu ikerlan bat egiten ari den edo gure monografiak edo aldizkariak kontsultatu nahi dituen erabiltzaile orok. Hitzordua eskatu behar da kontsultak egin ahal izateko; hala, aldez aurretik prestatzen da eskatutako materiala, erreserbako funtsean baitaude batzuk.

Liburutegira egindako bisitak % 20 ugaritu dira 2021eko datuekin alderatuta, neurri batean Euskadiko Filmategiak EQZErekin duen lankidetzari esker eta ikasleek zein irakasleek funts bibliografikoak eta hemeroteka kontsultatu behar izateagatik, besteak beste, ZINE: *ikerketa zinematografikorako koadernoak* aldizkarian artikuluak idazteko dokumentazio-lanetarako. Aldizkari hori Elías Querejeta Zine Eskolak (EQZE), Donostia Zinemaldiak eta Euskadiko Filmategiak editaturiko argitalpen akademiko bat da.

## CONSULTAS REALIZADAS EN LA BIBLIOTECA

Los fondos de la biblioteca están al alcance de cualquier usuario que esté investigando o necesite consultar alguna de nuestras monografías o revistas. Las consultas se realizan con cita previa para que el material solicitado pueda ser previamente preparado, debido a que algunos de ellos se encuentran en el fondo de reserva.

Las visitas a la biblioteca han aumentado un 20% con respecto al 2021, gracias en parte a la colaboración de la Filmoteca Vasca con la EQZE y la necesidad, tanto de estudiantes como de profesores, de consultar los fondos bibliográficos y la hemeroteca para, entre otras cosas, documentarse para redactar algunos de los artículos en la revista *ZINE: cuadernos de investigación cinematográfica* (publicación académica editada por Elías Querejeta Zine Eskola –EQZE-, el Festival de San Sebastián y la Filmoteca Vasca).




ARTXIBOA / ARCHIVO

**859**

Gidoi original eta/edo proiektu zinematografiko ditu katalogatuak, erabiltzaileen eta ikertzaileen eskura.

Guiones originales y/o proyectos cinematográficos catalogados y accesibles para los usuarios y los investigadores.

LIBURUTEGIA / BIBLIOTECA

**7.000**

Alek baino gehiagok osatzen dute: Espainiako eta nazioarteko edizioetako dokumentu askotarikoak.

Ejemplares, está constituido por diferentes tipos de documentos, tanto de ediciones nacionales como de ámbito internacional.







# Artxiboa

# Archivo

## GIDOIAK -

Gaur egun, Euskadiko Filmategiak 859 gidoi original eta/edo proiektu zinematografiko ditu katalogatuak, erabiltzaileen eta ikertzaileen eskura. Horietako batzuk hiru bilduma pribatutakoak dira (150 titulu Blanca Zaraguetak dohaintzan emanak, 39 José Julián Baquedanok emanak eta beste 18, berriz, Éric Le Royk), bai eta Antxon Eceiza zinemagilearen funtsekoak ere, askotariko dokumentuekin (haien artean: 25 gidoi; hainbat proiektutako 60 tratamendu, gidoi eta sinopsi baino gehiago; 250 argazkitik gora; eta makina bat prentsa-artikulu, aldizkari, diploma, liburuxka...).

## GUIONES

La Filmoteca Vasca dispone en la actualidad de 859 guiones originales y/o proyectos cinematográficos catalogados y accesibles para los usuarios y los investigadores. Algunos de ellos pertenecen a tres colecciones privadas diferentes (150 títulos donados por Blanca Zaragüeta, 39 por José Julián Baquedano y 18 por Éric Le Roy), así como al fondo del cineasta Antxon Eceiza, con documentos de diversas tipologías entre las que destacarían 25 guiones, más de 60 tratamientos, guiones y sinopsis de diferentes proyectos, así como una gran variedad de artículos de prensa, revistas, diplomas, folletos y más de 250 fotografías.

## KARTELAK

Filmategiaren funtsetan, Espainiako eta nazioarteko filmei buruzko 1.206 kartel inguru gordetzen dira; horietatik 491, digitalizatuta.

## CARTELES

En los fondos de la Filmoteca se conservan 1.206 carteles de cine en papel de títulos tanto nacionales como internacionales, de los cuales 491 están en formato digital.

# Irakaskuntza-lanak EQZE-n eta ikasleen praktikak

# Docencia en la EQZE y prácticas de estudiantes

